



# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN PROGRAMA MARTXAN

**Urriaren 18ko astean abiatuko da 2021/2022 ikasturterako prestatutako Ikastolako Eskolaz Kanpo Ekintza programa.**

Izen-ematea aztertuta, bada behar beste ikasle lortu ez duen ekintzarik. Hori dela eta, izena emateko epea **urriaren 29 arte** luzatuko dugu ekintza guztietan, eta baliteke orain abian jarri ez den ekintzaren bat azaroan bideratzen hastea.

## URRIAREN 19AN, ASTEARTEA, HASIKO DIREN EKINTZAK

-Ingelesa, 16:30-17:30 (Lehen Hezkuntza)  
-Jokoak eta kirola, 16:30-17:30 (BHko kiroldegia)

## URRIAREN 20AN, ASTEAZKENA, HASIKO DIREN EKINTZAK


-Trikiti eta pandero, 14:30-17:45,3 txanda ezberdin (Lehen Hezkuntzan)  
-Irristaketa, 15:00-17:00 (BHko kiroldegia)

## URRIAREN 23AN, LARUNBATA, MENDI IRTEERA

-Goikogane mendi taldearekin antolatutako irteeratako partaideek txangoen egutegia jasoko dute laster. Baina lehendabiziko irteera urriaren 23an izango dela aurreratzen dugu.

## IZEN EMATEA BERRIRO ZABALIK URRIAREN 29 ARTE

Gainerako ekintzak, eskupilota, robotika, kitsune, intellectus, boloak, areto futbola,



saskibaloia, jolas eta tailerrak, eta euskal dantzak, ez dira momentuz martxan jarriko.

Izen emate epea urriaren 29 arte luzatuko da ekintza guztietarako, martxan diren taldeetan libre geratutako tokiak betetzeko eta atera ez den ekintzaren bat abiatzen saiatzeko.

izena eman



ekintzak  
kontsultatu

